



a cha-cha-cha...) gurpil-aulkietan daudenentzat egokituz. Lehenengo erakustaldi publikoa egin zuenean, jendea harrিতuta utzi zuen, eta gero etorri dira txapelketak”.

Holandan, bertako eta Alemaniako irakasleekin hitzegin eta ikastaro labur bat egiteko aukera izan zuten Natalio eta Estherrek. Bideo didaktiko bat ere ekarri zuen.

■ TERAPIA EGOKIA GAIKOENTZAT

Gaur egun Iruñako Infanta Elena eta Aspace ospitaleetan ari dira teknika hau aplikatzen. “Lehenengo, erritmoa errueda edo gurpilekin eramateen ikasi behar da” azaltzen digu Nataliok; “adibidez, musika doinuaren kolpe fuerte bakoitzeko *rodada* edo jira oso bat egiten dugu.

Gero, teknika espezifikagoak daude, adibidez, jiroa lekuan bertan egin ahal izateko, desplazamendurik gabe”.

Aldea egoten da pertsona bakoitzak daukan elbarritasun graduaren arabera; batzuk sano eta sendo dauzkate bi besoak, beste batzuek ez...

Baina, hala ere, ez omen dago mugarik, Natalioren ustez. “Elbarrituek ahal badute, euren artean egiten dute dantza; mugitzeko zailtasun handia baldin badauka berriz, ondo dagoen pertsona batek lagunduta egiten da. Azken honi *Combi* modalitatea deitzen zaio”.

Edozein dantza egin omen daiteke gurpil-aulkian. “Tangoa, Salsa, Boleroa... Sevillanak ere ari gara ikasten”.

Nataliok aitortu digunez, jendea harrিতuta gelditzen da, gurpil-aulkian egon arren dantza egin daitekeela ikusita. “Gero eta dei gehiago ari gara jasotzen ospitale eta egoitzetatik. Azken finean, oso



Natalio eta Esther Degurixako minusbalidoen akanpadan egon ziren eta argi eta garbi erakutsi zuten dantzarako ez dagoela mugarik

terapia egokia da gaixoentzako; alde batetik ejerjizioa egiten dutelako, eta, gainera, hain pozik egoten dira!”

Mundu berria eta izugarri aberatsa deskubritu duela dio Nataliok. Momentuz, bera eta Esther dira Estatuan teknika hau lantzen duten bakarrak, eta sakontzen jarraitzeko asmoa duela esan digu. Aurten, bertan, maiatzean, Suedian egon dira, teknika hau lantzeko ikastaro bat egiten.

Elbarrituekin ez ezik, Down sindrome-ko jendearekin ere egin izan du lan Nataliok Arrasateko Aita Menni ospitalean, eta hau ere oso esperientzia aberatsa izan dela aitortu digu.

■ DANTZA, ANIMAZIOA ETA ANTZERKIA

Nataliok hamar bat urte darama dantza- irakasle lanetan. Oñatin bertan, Santa Marinan, ikasturte osoa eman du aurten 40 bat herritarri Salsa, Merengue, Tango, Vals, Cha-Cha-Cha eta abarren erritmoak irakatsiz. Arrasate eta Iruñan ere ematen ditu klaseak.

Horrez gain, animatzaile lanak ere egiten ditu Iruña, Donostia eta Beasaingo pub ezberdinetan, eta Arrasateko Hotelean. Golden diskotekan ere ibili izan da.

Hori guztia gutxi balitz, ALIO-LI antzerki taldeko kide ere bada Natalio, beste bi lagunekin batera. Iaz estrenatu zuten euren lehenengo espektakuloa, antzerkia eta areto-dantzak konbinatuz.

Iazko arrakasta ikusita, espektakulo berria prestatzen ari dira. “Hil honen bukaeran estrenatuko dugu. Madrilgo maixu batek prestatu dizkigu koreografiak, eta, gainera, argi eta soinu efektu gehiago sartu nahi ditugu aurten”.